Erref.: **URA/026A/2022**

Edozein informaziotarako erreferentzia hori esan

EBAZPENA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA HELBURU DUEN KONTRATUA ESLEITZEN DUENA.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako dokumentuak jasotzen dituen erreferentziazko espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa. - Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak, 2022ko uztailaren 5eko Ebazpenaren bidez, honako hauek onetsi zituen: kontratazio-espedientea, Administrazio Klausula Berezien Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratazioak dakarren gastua. Kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedura irekitzea agindu zen, zenbait balorazio-irizpiderekin.

Bigarrena. - Lizitazioari buruzko iragarkia Kontratugilearen profilean argitaratu zen, 2022ko uztailaren 7an. Eskabideak sartzeko azken eguna 2022ko uztailaren 26a izan zen, 12:00etan.

Hirugarrena. - Jarduketetan jasota dagoenez, horretarako ezarritako epearen barruan eskaintzak aurkeztu zituzten:

Enpresa	Erregistro-data
ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	2022/07/26 11:28
EMUN, S.COOP.	2022/07/26 09:51

Laugarrena. - 2022ko uztailaren 26an egindako bilkuran, Kontratazio-mahaiak kalifikatu egin zituen gaitasunari eta kaudimenari buruzko aurretiazko baldintzak betetzen zirela egiaztatzen duten agiriak, eta erabaki zuen ELHUYAR-ZUBIZE enpresak aurkeztutako eskaintzan II II eranskina (*Baliabideak adskribatzeko konpromisoa*) falta zitzaiola; beraz, erabaki zen aipatutako enpresak alderdi hori zuzen zezala.

Bosgarrena. – Kontratazio-mahaiak, 2022ko abuztuaren 16an egindako bilkuran, eskaintza teknikoa ireki zuen (C gutun-azala), eta horren ebaluazioak balio-iritzi bat egitea eskatzen du; ondoren, balorazio-txostena eskatzea erabaki zuen kontratazioa sustatzen duen organoari.

Seigarrena. - 2022ko irailaren 29an egindako bilkuran, Kontratazio-mahaiak Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzak egindako balorazio-txostena onartu zuen, eta eskaintza teknikoari esleitutako puntuazioa jakinarazi zuen:

	ENPRESAK	Puntuazioa
	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	48,00
	EMUN Koop. E	27,00

Zazpigarrena.- Kontratazio-mahaiak, bilkura berean, lizitazio-prozesuan onartutako erakundeek aurkeztutako B gutun-azala ireki zuen. Bertan, formulen bidez automatikoki ebalua daitekeen informazioa jasotzen da, eta PREZIOAREN IRIZPIDEARI dagokionez, honako hauek dira emaitzak:

ENPRESAK	Aurrekontua, BEZik gabe
ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	66.150,00
EMUN Koop. E	66.500,00

Ondoren, Kontratazio Mahaiak erabaki du dokumentazioa Zuzendaritza sustatzaileko zerbitzu teknikoetara bidaltzea, formulak ikusita aztertu eta dagokion txostena egin dadin.

Zortzigarrena. - 2022ko urriaren 7an, Zuzendaritza sustatzaileak txostena egin zuen, eta honako puntuazio hau eman zion eskaintza ekonomikoari:

	ENPRESAK	Puntuazioa
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	46
2	EMUN Koop. E	45,76

Irizpidea: Berdintasunerako ekintzak hartzea eta aplikatzea.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua gauzatzen duten langileei berdintasunaren arloko 10 prestakuntza-ordu gutxienez emateko konpromisoa.

Berdintasunerako ekintzetan konpromisua biek ala biek agertu dute; beraz, biek atal honi dagokion 5 puntuak eskuratu dituzte:

	ENPRESAK	Puntuazioa
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	51
2	EMUN Koop. E	50,76

Eskaintzen balorazio bateratua egin ondoren, azken puntuazioa honela lortzen da: batetik, balio-iritzi baten bidezko irizpideen ("C" gutun-azala) baloraziotik ateratako puntuazioen eta, bestetik, formulak ("B" gutun-azala) aplikatuz automatikoki ebaluatzen diren irizpideen baloraziotik lortutakoen batura. Azken puntuazioak honela geratu dira:

	ENPRESAK	Teknikoa	Ekonomikoa	GUZTIRA
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	48,00	51	99
2	EMUN Koop. E	27,00	50,76	77,76

Bederatzigarrena.- Lortutako emaitzak kontuan hartuta, kontratazio-mahaiak 2022ko urriaren 7an proposamena egin zion kontratazio-organoari "URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA", LAUROGEI MILA ETA BERROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOKO (80.041,50 €), BEZ barne, aurrekontua duena, ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U. enpresari esleitzeko. Proposamen hori 2022ko urriaren 7an onartu zuen kontratazio-organoak.

Hamargarrena. - Lortutako emaitzen ondorioz, 2022ko urriaren 14an, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150. artikuluak xedatzen duen errekerimendua igorri zen, eta enpresak behar bezala aurkeztu zuen dokumentazioa, 2022ko urriaren 24an.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- 151. 9/2017 SPKLren 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoaren arabera, esleipena arrazoitua izan behar da, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinarazi behar zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratu behar da 15 eguneko epean. Jakinarazpen horretan eta aurreko paragrafoan aipatzen den publizitatean, esleipen-prozeduran interesa dutenek esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jartzeko behar duten informazioa jaso behar da, eta horren artean, betiere, honako hau jaso behar da:

a) Baztertutako izangaiei dagokienez, hautagaitza ezesteko arrazoien azalpen laburtua.

b) Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, 126. artikuluko 7. eta 8. idatz-zatietan jasotako kasuetan barne, baliokidetasunik eza erabakitzeko arrazoiak edo hornidurak errendimendu-baldintzetara edo eskakizun funtzionaletara ez egokitzeko erabakiaren arrazoiak ere; eta lizitatzaileei esleitutako balorazioen banakapena, esleipenduna barne.

c) Esleipendunaren izena, esleipendunaren proposamenaren ezaugarriak eta, esleipendunaren eskaintza aukeratua izan dadin, gainerako lizitatzaileek aurkeztu dituzten eskaintzen aldean izandako abantailak. Jakinarazpenean, kontratua formalizatzeko epea adieraziko da, aipaturiko legearen 153. artikuluaren 3. paragrafoaren arabera.

2.- 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluari jarraituz, 44. artikuluaren araberako kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badaiteke, kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidali eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen. Gainerako kasuetan, kontratua lizitatzaile eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, gehienez ere, 153. artikuluan aurreikusitako moduan.

3.- 9/2017 SPKLren 153.4 artikuluaren arabera, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ sartu gabe) %3ko zenbatekoa eskatuko zaio zigor gisa.

IKUSIRIK aipatutako xedapenak eta horiekin bat datozen aplikazio orokorreko gainerakoak eta kontuan izanik Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzak emandako txostena

EBATZI DUT

1.- ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.-ri esleitzea "URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA" (Esp. zk.: **URA/026A/2022),** honako baldintzetan oinarrituta:

- ✓ Kontratu honetako lanak gauzatzeko epea 24 HILABETEKOA da, kontratua jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

- ✓ Prezioa: 66.150,00 + 13.891,50 (% 21 BEZ) = 80.041,50 (BEZ barne) eta honako urteroko hauetan birbanatua.

URTEROKOA	ZENBATEKOA (BEZ barne)
2022	20.010,37 €
2023	20.010,37 €
2024	40.020,75 €
GUZTIRA	80.041,50 €

2.- Kontratua dagokion administrazio-agirian formalizatzeko agintzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 151. artikuluan ezarritako epean, aurrez kontratatzailearen profilean argitaratuta eta interesdun guztiei ebazpen hau jakinarazita.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 44. artikuluarekin bat etorriz, ebazpen honen aurka, aukeran, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango

zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari, 15 egun balioduneko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita. Edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G

Firmado digitalmente por ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G
Fecha: 2022.10.27 10:18:23 +02'00'

Antonio Aiz Salazar
URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA

<table>
<tr><td>Esleipen irizpideak</td><td>49 puntu</td></tr>
<tr><td>1.- Lan-metodologia</td><td>22 puntu</td></tr>
<tr><td colspan="2">1.1-Lanean jarraitu beharreko metodologia, lanaren fase bakoitza egiaztatzeko jarraibideak eta egin beharreko lanen mekanismoa eta sistematika baloratuko dira.

10 puntu</td></tr>
<tr><td>ELHUYAR</td><td>EMUN</td></tr>
<tr><td>Prozesua metodologikoki bideratzeko IAP (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen den metodologiaren oinarriak hartzen ditu kontuan. Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea.
Metodologia horrez gain, lanerako zenbait oinarriren lanketa eta VI Plangintzaldiko ildo nagusiak jasotzen dira.
Normalizazio-prozesuari ikuspegi sistemiko batetik heltzen dio.
Sistematizazio-prozesu bati ekitea proposatzen da, zenbait printzipio edo baldintza proposatuz.
Fase bakoitza argi azalduta eta eginbeharrak egoki eta eraginkor identifikatuta.
Diseinurako eta ebaluaziorako Siadecok diseinatutako adierazleak oinarri.
Urtez urteko jarraipenerako zenbait adierazleren proposamena. Horrez gain, HPSk VII Plangintzaldian zehar eskatuko dituen gutxieneko adierazleen kuadroa, haiek neurtzeko moduarekin batera.
Bikainerako urratsen ibilbidea, proposamen egokia.

10 puntu</td><td>VII. Plangintzaldirako plana diseinatzeko kudeaketa aurreratuak proposatzen duen PDCA zikloa hartzen du oinarri.
Baina horretarako egin beharreko urratsen proposamenean, azalpena ez dago garbi azalduta, punturen batean urratsak nahastuz.

Proposaturiko prozesua Lau Estrategia garatzean datza:
- Lehenengo estrategia: Bikain lortzeko plangintza
- Bigarren estrategia: lidergoa, ahalduntzea eta trebakuntza:
- Hirugarren estrategia: euskara planaren egitura
- Laugarren estrategia: euskararen kudeaketa sistema
Horien atalkako garapena azaltzean, zenbait aurreikuspen errealitateari egoki lotu gabe eginak dira. Proposaturiko zenbait ekintza-jardun zail dira gurean gauzatzen.
Proiektu baten aurkezpena izateko, agian, zenbait puntutan, aplika litezkeen urratsen zein metodologien azalpenetan, gehiegi luzatuta. Betelan tankera hartuta.
Prozesuaren garapena korapilatuxe aurkeztua.
Lan ildo bezala, salbuespenak salbuespen, gurean egokiago litzateke bereizketarik ez egitea trebakuntza saioetan arduradun-langileak bereiziz.

5 puntu</td></tr>
</table>

1.2- Zerbitzuaren plangintzaren indizearen egokitasuna baloratuko da.

6 puntu

ELHUYAR	EMUN
Honako indizea jarraitzen du: ▪ Sarrera: - Uraren Euskal Agentziaren ingurukoak - Euskararen egoeraren argazki orokorra ▪ Helburuak: - Helburu nagusia - Helburu zehatzak ▪ Lan-metodologia: - Lanerako oinarriak - Prozesuaren oinarriak - Lanerako metodologia - Aurrelanak - Plan Estrategikoaren diseinu-fasea - Garapen- eta ebaluazio-fasea -BIKAIN ziurtagiria ▪ Lan-Plana: - Lanen deskribapena - Kronograma - Egitura ▪ Lantaldea: - Elhuyarren ezaugarri nagusiak - Lantaldea - Elhuyar Aholkularitzaren lan-eskarmentua Egoki eta argi planteatutako prozesua. **6 puntu**	Honako indizea jarraitzen du: ▪ Sarrera ▪ Xedea ▪ Laburpen exekutiboa. Eskema batean jasoa: Lau estrategia horien garapena hiru fase nagusitan: Diseinua-Inplementazioa-Ebaluazioa. ▪ Proposamen teknikoa: - Lehenengo estrategia: Bikain lortzeko plangintza - Bigarren estrategia: lidergoa, ahalduntzea eta trebakuntza: - Arduradunentzako saioak - Langileentzako saioak - Hirugarren estrategia: euskara planaren egitura - Laugarren estrategia: euskararen kudeaketa sistema ▪ Emuneko lantaldea. Proiekturako lantaldea. Prozesuaren planteamendua, zenbaitetan, nahasi samarra gertatzen da. Lan ildo desberdinak elkarren gainean itogarri suertatzen dira, era nahasian. **2 puntu**

1.3- Parte-hartze prozesuaren plangintzaren argitasuna baloratuko da, bai eta Planaren izaera integralari eta, bereziki, Planaren inpaktuaren neurketari eragiten dioten proposamenak ere.

6 puntu

ELHUYAR	EMUN
Bideratu beharreko urrats eta faseak argi azalduta; parte hartzaileak eta horien funtzioak identifikatuta eta egoki planteatuta. **6 puntu**	Parte-hartze prozesuan, zenbaitetan, ez dago argi parte-hartzaileen edo eragileen funtzioak zeintzu diren. **3 puntu**

2.- Lan-plana	**17 puntu**

Kontratuaren prestazioak gauzatzeko egin beharreko lanen deskribapenaren xehetasuna eta kronograma.

ELHUYAR	**EMUN**
Prozesuaren lanen deskribapena eta Plan Estrategikoa diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko faseak: Modu argi, sintetiko eta integratu batean azalduta. Eta prozesua aurrera eramateko *Talde Eragilea*ren zein *Erabilera Batzordea*ren partaide-funtzio-funtzionamendua garbi zehaztuta. Kronograma, lehenengo urterako orientagarri, begirada errealetik proposatua dago. **16 puntu**	Laburpen Exekutiboaren atalean aurkezturiko Lau Estrategien garapena gauzatzeko faseen eskemari nahasi samar deritzogu eta ez dira zuzen egokitzen egun Uraren Euskal Agentzian dagoen egoerara. Horrez gain, kronogramak ez ditu tempus errealak jasotzen. Dagoeneko, ezinezko antzematen dira jasotako zenbait proposamen. Kronograma estuegia. Proiektu honi ekiterakoan hasieratik Bikainerako urratsak emateari ez deritzogu egokiena ezta eraginkorrena ere, gure erakundearen egungo egoeratik begiratuta. **8 puntu**

3.- Lantaldea	**10 puntu**

Kontratuaren xedeko arloetan, hau da, euskararen erabileraren normalizazio-planetan prestakuntza eta esperientzia profesionala baloratuko dira.
Bai eta, erakunde pribatuei zein publikoei, BIKAIN ziurtagiria lortzen laguntzeko prozesuan emandako aholkularitza–esperientzia ere izatea.

ELHUYAR	**EMUN**
Bi teknikari Lurralde-bulegoetan, beste bat egoitza nagusian, gehi URArekin solaskide izango den arduradun bat. Eta behar izanez gero, talde osoak hartuko du parte, zuzenean edo zeharka. **10 puntu**	Normalkuntza teknikari bat Lurralde- bulegoetarako (Bilboko bulegoa eta Donostiako bulegoa) eta normalkuntza teknikari bat Egoitza Nagusirako (Gasteizko bulegoa). Horrez gain, Uraren Euskal Agentziarekin solaskide izango den arduraduna. **9 puntu**
GUZTIRA, ELHUYARrek: 48 puntu	**GUZTIRA, EMUNek: 27 puntu**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 28a

Amaia Goitia Saenz de Buruaga Euskara teknikariak sinatua

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

AURKEZTUTAKO ESKAINTZEN AZKEN BALORAZIO TEKNIKO ETA EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA

ZERBITZUA	URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA
ESPEDIENTEA:	URA/026A/2022
KONTRATAZIO-ORGANOA:	URAREN EUSKAL AGENTZIA

1. BALORAZIO TEKNIKOA

URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA esleitzeko lehiaketa publikoari dagokionez, "Balio-iritzi baten bidez aplikatzekoak diren irizpideak" aintzat hartuz aurkeztutako eskaintzen gaineko balorazioaren txosten teknikoa egin zen, 2022ko irailaren 28an.

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ziren, zerbitzu-kontratuaren prozedura irekiko lizitazioa arautzen duen Administrazio-Klausula Partikularren Agiriaren karatularen 22.2.1. klausulan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuta. Hona hemen emaitzak:

	ENPRESAK	Puntuazioa
	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	48,00
	EMUN Koop. E	27,00

2. BALORAZIO EKONOMIKOA

Eskaintzen balorazio teknikoaren fasea amaitu ondoren, Kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzen B gutun-azalak ireki zituen 2022ko irailaren 29an.

Hona hemen lehiaketaren fase honetan sartu diren bi enpresetako bakoitzaren eskaintza ekonomikoak, BEZik gabe:

ENPRESAK	Aurrekontua, BEZik gabe
ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	66.150,00
EMUN Koop. E	66.500,00

Kontsiderazio horietatik, eta lehiaketaren AKPAren karatulako 22.2.2. klausularen arabera:

Irizpidea: Eskaintza ekonomikoa

Haztapena: **46 puntu**

Formula: Eskaintza baxuenari 46 puntu emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei proportzionalki dagozkien puntuak emango zaizkie, formula honen arabera.

46 x (eskaintza merkeenaren prezioa / eskainitako prezioa).

46 x (66.150,00 / 66.500,00) = 45,76 (Emun)

	ENPRESAK	Puntuazioa
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	46
2	EMUN Koop. E	45,76

Irizpidea: Berdintasunerako ekintzak hartzea eta aplikatzea.

Haztapena: **5 puntu**

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena: Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua gauzatzen duten langileei berdintasunaren arloko 10 prestakuntza-ordu gutxienez emateko konpromisoa. Prestakuntza hori erakunde ofizial edo baimendu batek ziurtatu beharko du.

Berdintasunerako ekintzetan konpromisua biek ala biek agertu dute; beraz, biek atal honi dagokion 5 puntuak eskuratu dituzte.

Hona hemen formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideen puntuazio taula:

	ENPRESAK	Puntuazioa
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	51
2	EMUN Koop. E	50,76

3. ESKAINTZEN AZKEN BALORAZIO TEKNIKO ETA EKONOMIKOA

Lehiaketaren bi balorazio faseetako puntuazioen baturak honako emaitza hau ematen du:

	ENPRESAK	Teknikoa	Ekonomikoa	GUZTIRA
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	48,00	51	99
2	EMUN Koop. E	27,00	50,76	77,76

4. ONDORIOA

Aurreko paragrafoetan azaldutakoaren arabera, hona hemen URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA lehiaketara aurkeztutako eskaintzek lortutako guztizko puntuazioaren emaitza, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta:

	ENPRESAK	GUZTIRA
1	ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.	99,00
2	EMUN Koop. E	77,76

Aurrekoarekin bat etorriz, honako hau PROPOSATZEN DA:

- ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U.-ri esleitzea URAREN EUSKAL AGENTZIAN EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO ETA BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA, 80.041,50 €-tan (BEZ barne).

- Esleipenaren zenbatekoa honako urteroko hauetan birbanatzea:

URTEROKOA	ZENBATEKOA (BEZ barne)
2022	20.010,37 €
2023	20.010,37 €
2024	40.020,75 €
GUZTIRA	80.041,50 €

Aditzera ematen da, aztertu eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 7a

Amaia Goitia Saenz de Buruaga

Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria

María López de Heredia San Julián

Administrazio eta zerbitzuen zuzendaria